OBRA-KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN PLEGUA
PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZKO ESLEIPENA

Espediente zenbakia: 2023 KON_IS_0001

LABURPEN TAULA

ADJUDIKATZAILEA
Erakundea: Bermeoko Udala
IFZ: P4802100J
NUTs kodea: ES213
Telefono zenbakia: 94 6179100
Faxa: 94 688 23 12
Helbidea: Irakaskintza 14-16, 48370 Bermeo (Bizkaia)
Helbide elektronikoa: antolakuntza@bermeo.eus
Egoitza elektronikoa: http://bermeo.eus

I. KONTRATUAREN OSAGAIAK

1. KONTRATUAREN XEDEA

1.1 Xedea: Alde zaharreko espaloien barriztapena, 2. Fasea: Intxausti kalea barriztatzeko obrak exekutatzea.

1.2 Ase beharreko beharrizanak: Bermeoko Udalak alde zaharreko espaloiak barriztatzeko plana egin dau. Bermeoko Udalaren erabilgarritasun ekonomikoa ikusita, barriztatze lanak kalez kale egin beharra dago. Lanak Nekazari kaletik hasi dira dira eta orain Intxausti kalearekin jarraitu beharra dago. Obra honeek egiteko, Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren dirulaguntza jaso da.

1.3 Loteak: Kontratua ez da loteetan banatuko justifikatze memorian azaldutako arrazoiengatik.

1.4 CPV:
45233252-0 Trabajos de pavimentación de calles

2. KONTRATU MOTA

- Modalitatea: Obrak
- Erregulazio harmonizatupeko kontratua: Ez
- Errekurtso berezia jar daitekeen kontratua: Ez
- Kontratu erreserbatua: Ez

CSV: 07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Sinadurea eta datea
AINARA ECHEVARRIA AGORRIA-URIGINTZA TEKNIKARIA - 30/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2023 11:15:31

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0001
Datea: 02/01/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

3. ORGANO ESKUDUNA

Alkatetza.

SPKLren 61. artikuluaren eta II. Xedapen Gehigarriaren arabera, kontratazio-organoa Alkatetza da, eta udalaren izenean jardungo du.

4. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA

Lizitazio honek, eskaintzak baliabide elektronikoen bidez aurkeztea baino ez du onartzen. Horretarako:

1.- Eskaintzak Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman dagoen lizitazio elektronikoko sistemaren bidez aurkeztuko dira: https://www.contratacion.euskadi.eus/

2.- Jakinarazpenak eta komunikazioak Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataformaren bidez egingo dira eta/edo Bermeoko Udaleko egoitza elektronikoaren bidez: https://www.tramiteakonline.bermeokoudala.eus/

Hala ere, ahozko komunikazioa (edo posta elektroniko bidezkoa) erabil daiteke prozeduraren funtsezko elementuei buruzkoak ez diren komunikazioetarako, SPKLren XV. Xedapen Gehigarrian eta harekin bat datozenetan ezarritako moduan.

5. KONTRATU IZAERA DUTEN AGIRIAK

Esleipendunak bere proposamena aurkeztean bere gain hartzen dituen betebehar gehigarrien kalterik gabe, ondorengo dokumentu hauek kontratu izaera izango dute: laburpen taula, administrazio baldintza zehatzen pleguak, baldintza teknikoen agiria eta kontratua formalizatzeko agiria.

6. KONTRATUAREN ARDURADUNA ETA ARDURA DUEN UNITATEA

Kontratuaren arduraduna: BERUALAko arkitektoa
Helbide elektronikoa: urigintzatek@bermeo.eus
Kontratuaren jarraipen eta exekuzio arruntaz arduratzen den unitatea: Urigintza Saila

CSV: 07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Sinadurea eta datea
AINARA ECHEVARRIA AGORRIA-URIGINTZA TEKNIKARIA - 30/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2023 11:15:31

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0001
Datea: 02/01/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

7. KONTRATAZIO MAHAIA

Presidentetza: Idoia Platas Arenaza, alkateordea (bere ordez, Alazne Zumeta Garro)

Mahaikideak:
Jurdana Uriarte Lejarraga, idazkari orokorra (ordezkoa Karmele Muñoa Arrigain).
Edurne Urrutia Uriarte, udal kontu-hartzailea (ordezkoa, Idurre Basterretxea Altonaga).
Ainara Etxeberria Agorria, Urigintzako AOT (ordezkoa, Karmele Muñoa Arrigain)

Idazkaritza:
Bixente Pérez Bilbao, urigintza saileko administraria (bere ordez, Igor Santa Eufemia)

8. KONTRATUA BETETZEKO EPEA

Kontratua betetzeko epea: hiru hilabete

Hasiera data: Kontratua formalizatu eta hurrengo eguna

Balizko luzapenak eta epea: Ez da luzapenik aurreikusten

9. KONTRATUAREN BALIOETSITAKO BALIOA

Balioetsitako balioaren zenbatekoa: 136.345,36 euro, BEZik gabe.

Kontratuaren balio zenbatetsia, SPKLren 101. artikuluaren arabera kalkulatua, kontuan hartu da kontratu honi aplikatu beharreko esleipen-prozedura eta zein publizitate izango duen aukeratzeko.

Ez da aurreikusten behin-behineko aukerarik, ez luzapenik, ez primarik, ez aurreikusitako aldaketarik

CSV: 07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Sinadurea eta datea

AINARA ECHEVARRIA AGORRIA-URIGINTZA TEKNIKARIA - 30/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2023 11:15:31

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0001

Datea: 02/01/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

10. KONTRATUAREN LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA

AZALPENA	ZENBATEKOA
Obraren exekuzio materiala	112.219,33
Segurtasuna eta osasuna	897,75
Hondakinen kudeaketa	1.009,97
Kalitate- kontrola	448,88
GG+BI	21.769,43
BEZa	28.632,53
Zenbateko osoa	164.977,89 €

11. FINANTZIAZIOA

Hauek dira kontratuaren aurrekontu-urteak eta gastuaren aurrekontu-aplikazioa (GAA):

2023 urtea GAA 00700 15100 6010112

Kontratu honek horretarako kreditu egokia eta nahikoa izatearen etete-baldintza bete beharko du.

12. PREZIOA EZARTZEKO SISTEMA

Oroharreko prezioan

13. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Ez dagokio

II. KONTRATATZEKO ESKATUTAKO BALDINTZAK

14. GAITASUNA

Pertsona natural edo juridikoak beren estatutuen edo fundazio-arauen arabera berezkoak dituzten xede, helburu edo jarduera-eremuaren barruan dauden prestazioak dituzten kontratuen esleipendun baino ezin daitezke izan.

CSV: 07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Sinadurea eta datea

AINARA ECHEVARRIA AGORRIA-URIGINTZA TEKNIKARIA - 30/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2023 11:15:31

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0001

Datea: 02/01/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

15. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Prozedura sinplifikaturen bidez izapidetutako lizitazioetara aurkezten diren lizitatzaileek Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emanda egon beharko dute.

Ondorio horietarako, lizitatzailearen proposamena ere onargarritzat joko da, baldin eta egiaztatzen badu dagokion erregistroan inskribatzeko eskaera aurkeztu duela, horretarako nahitaezko dokumentazioarekin batera, betiere eskaera hori eskaintzak aurkezteko azken eguna baino lehenagokoa bada. Egoera hori egiaztatzeko, dagokion erregistroak egindako eskaeraren hartu- agiria eta nahitaezko dokumentazioa aurkeztu izanaren eta zuzentzeko errekerimendurik jaso ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dira.

16. ESKATUTAKO ENPRESA GAIKUNTZA

Ez da eskatzen

17. KAUDIMENA

17.1 Kaudimen ekonomikoa eta finantza kaudimena

- Irizpidea: negozioen urteko bolumena, amaitutako azken hiru negozio-bolumenik handiena duen urteari dagokiona.
- Gutxieneko baldintza: Urteko bolumen handienaren zenbatekoak kontratuaren urteko batez besteko balioa halako bat eta erdikoa izan beharko du gutxienez (BEZa kanpo), hau da: 204.518,04 euro
- Egiaztapena (esleipendunak aurkeztu beharreko agiriak): erantzukizuneko aitorpena honela aurkeztuko da:

  a) Onartutako eta Merkataritzako Erregistroan edo enpresaburuak izena eman behar duen erregistro ofizialean gordetako urteko kontuetan ageri diren balioak jarri behar dira. Bermeoko Udalak dagokion erregistroan sartuz egingo ditu egiaztapenak.

  b) Baliozko arrazoiren batengatik, enpresa lizitatzaileak ez badu urteko konturik onartu eta gordailuan utzitako azken 3 urteetatik gorako zenbatekorik (adibidez, dagokion erregistroan kontuak aurkezteko betebeharrik ez duelako edo enpresa sortu berria delako), adierazpenean arrazoia adierazi beharko du.

CSV: 07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Sinadurea eta datea

AINARA ECHEVARRIA AGORRIA-URIGINTZA TEKNIKARIA - 30/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2023 11:15:31

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0001

Datea: 02/01/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

c) Merkataritza-erregistroan izena emanda ez dauden banakako enpresaburuek eta aurreko paragrafoan aipatutako baliozko arrazoia adierazi duten enpresaburuek beren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatuko dute. Horretarako, erantzukizuneko aitorpenaz gain, 303 eta/edo 390 ereduak edo Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitorpenaren 200 eredua edo baliokidea aurkeztu beharko dituzte.

(Oharra: urteko negozio bolumena merkataritzako legerian ezarritako urteko kontuen erregelamenduzko ereduetako galdu- irabazien kontuan ageri den negozio zifraren zenbateko garbia da).

17.2 Kaudimen teknikoa eta profesionala

- Irizpidea: Egindako obretan izandako eskarmentua, baldin eta kontratuari dagokion sailkapen-talde edo -azpitalde berekoak badira, edo kontraturako talde edo azpitalde garrantzitsuenekoak, hainbat azpitalderi dagozkien lanak barne hartzen baditu.
- Gutxieneko baldintza: Azken bost urteetan exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratu honen lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren %70 edo handiagoa izatea (BEZik gabe), hau da: 95.441,75 euro
- Egiaztapena (esleipendunak aurkeztu beharreko agiriak): Azken bost urteetan egindako obren zerrenda, egikaritze onaren ziurtagiriek abalatuta; ziurtagiri horietan, obren zenbatekoa, datak eta gauzatze-lekua adieraziko dira, eta zehaztuko da lanbidea arautzen duten arauen arabera egin ziren eta normalean ondo egin ziren; hala badagokio, ziurtagiri horiek zuzenean jakinaraziko dizkio agintaritza eskudunak kontratazio-organoari.

Ondorio horietarako, obren enpresa kontratistaren filiala den atzerriko sozietate batek egindako obrak kontratistak berak zuzenean egindakotzat joko dira; beti ere, azken horrek badu, zuzenean edo zeharka, haren kontrola, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako moduan. Kontratistaren partaidetza duen atzerriko sozietate batek baldintza hori bete gabe gauzatutako obrak direnean, sozietate partaidetuak haren kapital sozialean duen partaidetzaren proportzioan gauzatutako obra baino ez da aitortuko kontratistari egotz dakiokeen esperientzia gisa.

Enpresa sortu berrientzat: Enpresa sortu berri baten kasuan, hau da, bost urtetik beherako antzinatasuna duen enpresa baten kasuan, kaudimen teknikoa egiaztatuko da, eta ez da inola ere aplikatuko aurreko paragrafoan zerbitzu-kopuru jakin bat gauzatzeari buruz ezarritakoa, SPKLren 82.2 artikuluaren b) - f) letretan aurreikusitako bitartekoaren bidez.

18. ESKATUTAKO KAUDIMENA ORDEZ DEZAKEEN ENPRESA- SAILKAPENA

Taldea	Azpitaldea	Kategoria
G	6	2

CSV: 07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Sinadurea eta datea

AINARA ECHEVARRIA AGORRIA-URIGINTZA TEKNIKARIA - 30/01/2023

CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2023 11:15:31

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0001

Datea: 02/01/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

III. LIZITAZIOA

19. ESLEIPENA EGITEKO PROZEDURA ETA MODUA

- Prozedura: Ireki sinplifikatua
- Tramitazioa: Arrunta
- Esleitzeko modua: Hainbat esleipen irizpidekoa
- Aurretiazko izapidetzea: Ez

20. LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA

- Bermeoko Udaleko kontratugilearen profila: http://www.bermeo.eus
- Euskadiko kontratazio publikoko plataforma: https://www.contratacion.euskadi.eus/
- EBAOn argitaratzea: Ez

21. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

LEKUA: Kontratugilearen profilean, honako esteka honen bidez: http://bermeo.eus/1470.html

EPEA: 20 egun natural, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Artxiboei izen orokor hau emango zaie, artxibo bakoitzak izango duen azpitituluari kalterik egin gabe:

- INTXAUSTI KALEA BARRIZTATZEKO OBRA KONTRATUA. A ARTXIBOA. DOKUMENTAZIO OROKORRA ETA BALIO- JUDIZIOAREN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK.
- INTXAUSTI KALEA BARRIZTATZEKO OBRA KONTRATUA B ARTXIBOA. IRIZPIDE AUTOMATIKOAK

22. GALDERAK ETA AZALPENAK

Galderak aurkezteko modua: Jarraian ageri den helbide elektronikora idazki bat bidaliz, baldintza agiri administratiboen eranskineko ereduaren arabera: idazkaritzakoaot@bermeo.eus

Galderak aurkezteko epe muga: eskaintzak aurkezteko azken eguna baino 10 egun natural lehenago.

CSV: 07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Sinadurea eta datea
AINARA ECHEVARRIA AGORRIA-URIGINTZA TEKNIKARIA - 30/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2023 11:15:31

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0001
Datea: 02/01/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Lizitatzaile guztientzat interesgarriak diren egindako kontsulten erantzunak Bermeoko Udalaren kontratugilearen profilean argitaratuko dira: http://www.bermeo.eus

Galderen izaera loteslea: Bai

23. DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO MODUA

Artxibo elektroniko 2 aurkeztuko dira:

A ARTXIBOA: Dokumentazio orokorra eta balio- judizioaren mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.

B ARTXIBOA: Automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa.

Agiri guztiak egon beharko dira digitalki sinatuta

24. LIZITATZAILEEN PROPOSAMENA: AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

A ARTXIBOA: Dokumentazio orokorra eta balio- judizioaren mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.

- **Erantzukizunpeko adierazpena** Bermeoko Udalaren aurrean, I. eranskinean dagoen ereduaren arabera.

- **ABEE:** ABEEren kasuan, ABEE eratzeko konpromiso-eredua aurkeztuko da (ABZParen eranskinetan azaltzen den ereduaren arabera, behar bezala beteta).

  ***Oharra:** ABEEren kasuan edo kaudimena kanpoko bitartekoekin integratuz gero (SPKLren 75. artikulua) DEUC eta erantzukizunpeko adierazpen bana aurkeztuko da enpresako.

- **Balio-judizio baten mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa;** laburpen-taula honetako **25. atalean** adierazitako puntuak jasotzen dituen memoria teknikoa jaso beharko du.

  Artxibo honetan inola ere ez da jasoko eskaintza ekonomikoaren agiririk, ezta formula bidez kuantifikatu ahal diren irizpideei buruzko alderdirik ere. Dokumentu horiek artxibo honetan sartzea lizitaziotik baztertzeko arrazoia izango da. Enpresa lizitatzaile bakarra egonez gero, kontratazio mahaiak erabakiko du

CSV: 07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Sinadurea eta datea
AINARA ECHEVARRIA AGORRIA-URIGINTZA TEKNIKARIA - 30/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2023 11:15:31

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0001
Datea: 02/01/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

B ARTXIBOA: Automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa.

Artxibo honetan, eskaintza ekonomikoa aurkeztu beharko da, ABZParen III. eranskinean ezarritako ereduari jarraiki.

Eranskinean ezarritako eredua aldatzen duten eskaintzak aurkezteak, lizitaziotik kanpo gelditzea ekarriko du. Enpresa lizitatzaile bakarra egonez gero, kontratazio mahaiak erabakiko du horri buruz.

IV. ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

25. ESLEIPEN IRIZPIDEAK

25.1. Ebaluazio automatikoaren irizpideak (75 puntura arte)

a) Eskaintza ekonomikoa (75 puntu):

Beherapenik handiena lizitazio prezioaren %5 baino handiagoa bada, puntu guztiak baja portzentajerik handienari emango zaizkio, eta gainerako eskaintzei, bajaren portzentajearen proportzioan, formula honen arabera:

Pi = 75 x (Bi/Bm)

Beherapen handiena lizitazio prezioaren %5 baino handiagoa ez bada, eskaintza bakoitzak bere baja-portzentajearekiko proportzioan lortuko ditu puntuak, formula honen bidez:

Pi = 75 x (Bi/5)

Aldagaien definizioa:
Pi= "i" lizitatzailearen puntuazioa
Bm= beherapen handiena
Bi= "i" lizitatzailearen beherapena

Eskaintzak BEZik gabe baloratuko dira.

(Oharra: Lizitatzaile bakarra balego, puntuazio osoa emango litzaioke)

25.2. Balio- judizioaren mende dauden irizpideak (25 puntura arte):

Enpresa lizitatzaileek memoria tekniko bat aurkeztu beharko dute, honako eduki honekin:

Obrearen analisia, metodologia: 20 puntu

CSV: 07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Sinadurea eta datea
AINARA ECHEVARRIA AGORRIA-URIGINTZA TEKNIKARIA - 30/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2023 11:15:31

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0001
Datea: 02/01/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Egin beharreko lanen azterketa aurkeztu beharko da, obrak gauzatzean jarraitu beharreko bitartekoen eta prozeduren azalpen zehatza, eta jardueren iraupen-denboren kalkulua dagokion plangintzarekin.

Lan programa osoa izan behar da eta obra exekutatzeko exekuzino epea adierazi beharko da. Exekuzino epeak ezin izango dau pleguetan jasotako epea gainditu.

Plangintza lan bakoitzerako kalkulatutako epeak betetzen direla bermatzeko neurriekin osatu beharko da, baita aurreikusitako epeen edozein desbideratze antzemanez gero abian jarri beharreko neurri zuzentzaileekin ere:

Baloratuko dana: Proiektuaren ezagutza osoa erakustea, jarduketan egin beharreko lan zehatzei buruzko azalpenaren zehaztasuna, eta baita kontratua behar bezala gauzatzeko garrantzi handieneko, berezitasun handieneko edo ekintza estrategikoen detekzioa ere.

Irisgarritasun eta segurtasun plana: 5 puntu

Bertan zehaztuko dira jarriko den seinalitika, lokal eta atarietarako sarbide guztietarako pasabideak, ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazio-mozketen plangintza eta horien aukerak. Proposatzen den seinalitika guztia eskaintzaren zati izango da eta esleipenaren prezioan sartuta egongo da, eta euskaraz eta gaztelaniaz egon beharko du testua duen kasuetan.

Baloratuko dana: Proiektuari eta haren inguruabarrei buruzko proposamena zehaztea, ahal den guztietan egokitutako bideak ezartzea eta eragozpenik txikienak eragiteko elementuak gehitzea baloratuko da.

Irizpide bakoitzean, eskaintzak ebaluatu eta sailkatzeko, honako balorazio modu hau erabiliko da:

- Nahikoa ez den eskaintza: Horrela ulertuko da proposamenaren garapena eta irismena nahikoa ez denean edo koherentziarik ez duenean. Irizpidearen gehienezko puntuazioaren 40% arte.
- Nahikoa den eskaintza: Horrela ulertuko da proposamenaren garapena eta irismena urria denean edo ez duenean alderdietakoren baten. Irizpidearen gehienezko puntuazioaren %50era arte.
- Eskaintza ona: Ontzat hartuko dira proposamenaren garapena eta irismena egokia denean eta garatu gabeko edo gutxi garatutako alderdiak ez direnean funtsezkotzat hartzen eta kontratua behar bezala betetzea arriskuan jartzen ez dutenean. Irizpidearen gehienezko puntuazioaren %75era arte.
- Eskaintza aipagarria: Honela hartuko da proposamenaren garapena eta irismena osoa eta zehatza denean, proposamena erabat egokia eta

CSV: 07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Sinadurea eta datea
AINARA ECHEVARRIA AGORRIA-URIGINTZA TEKNIKARIA - 30/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2023 11:15:31

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0001
Datea: 02/01/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

kontratuaren helbururako onena denean. Irizpidearen gehienezko puntuazioaren %100era arte.

26. BALIO ANORMALAK EDO NEURRIZ KANPOKOAK DITUZTEN ESKAINTZAK

Eskaintzek balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituztela joko da, Kontratuen Legearen Araudi Orokorreko 85. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (urriaren 12ko 1098/2001 ED).

27. FORMULEN BIDEZ EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEETAN LORTU BEHARREKO GUTXIENEKO PUNTUAZIO- ATALASEA

Ez da ezartzen.

28. LAN- PROGRAMA

Kontratistak aurkeztu behar ditu: Bai, memoria teknikoa hautaketa-irizpide gisa hartuta

V. KONTRATUA ESLEITZEA

29. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA

Kontratua esleitu aurretik, ABZParen **15. klausulan** adierazitako administrazio-agiriak aurkeztu beharko dira.

30. BEHIN BETIKO BERMEA

Esleipen prezioaren %5

VI. KONTRATUAREN EXEKUZIOA

31. PREZIOAREN ORDAINKETA

- Ordainketaren aldizkakotasuna: Hileko ziurtagiren bidez egingo da
- Ordainketa modua: Dagokion faktura aurkeztu eta gero egingo da, ABZParen **9. klausulan** ezarritakoaren arabera.

32. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

CSV: 07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Sinadurea eta datea

AINARA ECHEVARRIA AGORRIA-URIGINTZA TEKNIKARIA - 30/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2023 11:15:31

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0001

Datea: 02/01/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Ez dagokio

33. EXEKUZIO BALDINTZA BEREZIAK

- Baldintza teknikoen pleguan exekuzio-baldintza berezi gisa adierazitakoak, hala badagokio.
- Ingurumenekoak: ABZParen **22. atalean** adierazitakoak.

34. AZPIKONTRATAZIOA

- Azpikontratatzeko aukerari mugak ezartzen zaizkio:Ez.
- Azpikontratazioaren kasuan, lizitatzaileek informazioa eta/edo dokumentazioa emateko betebeharra: Bai
- Ordainketa zuzena azpikontratistei: Ez

35. KONTRATUA ALDATZEA

Aurreikusi bako aldaketak: Interes publikoko arrazoiengatik eta SPKLren 205. artikuluan aurreikusitako inguruabar eta mugaren bat gertatzen denean bakarrik sartu ahal izango dira aurreikusi gabeko aldaketak.

Jarraitu beharreko prozedura: ABBren **31. atalean** adierazitakoa.

36. HARTZE EPEA ETA KONTRATUAREN BERMEA

- Hartze- epea: Hilabete, ABBren **38. atalean** xedatutakoarekin bat.
- Berme- epea: Urtebete, ABBren **40. atalean** ezarritakoarekin bat.

37. SUBROGAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA

Ez dagokio

38. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

1. Kontratua amaitzeko uzteko arrazoiak dira SPKLren 211. artikuluko a) ataletik i) atalera eta 245. artikuluan azaltzen direnak.

CSV: 07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Sinadurea eta datea

AINARA ECHEVARRIA AGORRIA-URIGINTZA TEKNIKARIA - 30/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2023 11:15:31

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0001

Datea: 02/01/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

2. Amaitzeko arrazoi zehatzak honako hauek dira:

- Eskaintzan jasotako eskakizunak ez betetzea

- Baldintza agiri teknikoetan funtsezkotzat jotzen diren betebeharrak ez betetzea, hala badagokio

- ABZParen **22. atalean** kontratua gauzatzeko adierazitako baldintza bereziak ez betetzea.

- ABZParen **20 eta 21. ataletan** adierazitako kontratuaren funtsezko betebeharrak ez betetzea.

- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren prebentzioaren arloko arau-hauste oso larriagatik administrazio-bidean irmo kondenatua edo zehatua izatea.

39. KONTRATUAREN OINARRIZKO BETEBEHARRAK

A) Kontratuaren oinarrizko betebeharrak

- Kontratua gauzatzeko berariazko giza baliabideak eta baliabide materialak atxikitzea, eta, bereziki, bere proposamenean adierazitakoak.
- Azpikontratazioa egiteko baldintzak, SPKLren 215.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.
- BPTan funtsezkotzat jotako betebeharrak ez betetzea, dagokionean.
- Bere eskaintzan adierazitakoak ez betetzea

B) Gizarte edo lan arloko betebeharrak

Kontratua gauzatzen den bitartean, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan ezarritako arauak eta baldintzak betetzea, eta, nolanahi ere, aplikatu beharreko sektoreko hitzarmen kolektiboaren arabera, langileen soldata-baldintzak betetzea.

40. SAIAKUNTZAK

Materialen eta obra-unitateen saiakuntzak, analisiak eta berariazko txostenak egiteko gastuak kontratistaren kontura izango dira, obraren prezioaren % 1era arte.

41. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN TRATAMENDUA

Izaera pertsonaleko datuen tratamendurik ez dago: Kontratu hau betetzeko esleipendunak ez du datu pertsonalik tratatuko

CSV: 07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Sinadurea eta datea

AINARA ECHEVARRIA AGORRIA-URIGINTZA TEKNIKARIA - 30/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2023 11:15:31

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0001

Datea: 02/01/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

42. KONTRATUA BETETZEKO HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarritako hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidearen mende dago, eta Euskararen Erabilera Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak eta hura garatzeko araudiak arautzen dute (179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzional eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa). Beraz, enpresak hizkuntza-eskubide horiek bete beharko ditu.

Enpresa esleipendunak eta balizko azpikontratistek bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte obran ikusgai jartzen diren errotulazio- eta seinaleztapen-elementu guztietan, bai barruko esparruan, bai kalean bertan dauden informazio-paneletan.

Herritarren eskura jarriko diren agiri edo inprimaki guztiak, halakorik balego, elebidunak izan beharko dira.

43. ERREKURTSOAK

- Berraztertzeko errekurtsoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluen arabera.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena)

CSV: 07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Sinadurea eta datea

AINARA ECHEVARRIA AGORRIA-URIGINTZA TEKNIKARIA - 30/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2023 11:15:31

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0001

Datea: 02/01/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

OBRA- KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN PLEGUA

PROZEDURA IREKI BIDEZKO ESLEIPENA

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea laburpen taularen **1.1 atalean** aurreikusitakoa izango da eta, kontratu honen bidez, **1.2 atalean** zehaztutako administrazio beharrizan hauek ase gura dira.

Kontratua ez da loteetan banatuko justifikatze memorian azaldutako arrazoiengatik.

Kontratuaren xedea kontuan hartuta, obra- kontratua administratiboa da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 13. eta 25. artikuluak kontuan hartuta.

Kontratua gauzatzeko beharra espedientea sustatu duen sailak egindako justifikazio-memorian zehazten da.

CPV: **1.4 atalean** adierazitakoak.

Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorriz egingo da Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.

2. ORGANO ESKUDUNA

SPKLren 61. artikuluaren eta II. Xedapen Gehigarriaren arabera, kontratazio organoa laburpen taularen **3. atalean** zehaztutakoa da.

Organoak administrazio-kontratua esleitzeko ahalmena du eta, hortaz, kontratua interpretatzeko, betetzean sortzen diren zalantzak konpontzeko, herri-intereseko arrazoiak direla-eta aldatzeko, suntsiarazpena erabakitzeko eta suntsiarazpenaren ondoreak zein diren zehazteko ahalmenak ditu, ezargarri diren arauek ezartzen dutenari lotuta. Horren inguruan ematen dituen erabakiak betearazleak dira; nolanahi ere, kontratatzaileak auzibide eskudunera jo dezake aurka egiteko.

3. KONTRATUAREN ARDURADUNA ETA ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA

Kontratuaren arduradunari dagokio, SPKLren 62.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratuaren betearazpena gainbegiratzea, erabakiak hartzea eta beharrezko jarraibideak ematea, hitzartutako prestazioa behar bezala gauzatzen dela ziurtatzeko, kontratazio-

CSV: 07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Sinadurea eta datea

AINARA ECHEVARRIA AGORRIA-URIGINTZA TEKNIKARIA - 30/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2023 11:15:31

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0001

Datea: 02/01/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

organoak esleitzen dizkion ahalmenen esparruan.

SPKLren 62.2 artikuluaren arabera, obra-kontratuetan, zuzendaritza fakultatiboak gauzatuko ditu kontratuaren arduradunaren ahalmenak, SPKLren 237.etik 246.era bitarteko artikuluen arabera.

Kontratuaren arduraduna plegu honen laburpen-taulako **6. atalean** adierazitakoa izango da.

Enpresa kontratistak zuzendaritza fakultatiboko langileei egin beharreko oharrak gorde eta zainaraziko dizkie, eta langile horiek libre izango dute obretarako langune eta material-biltegi guztietara sartzea, aurrez aztertu ahal izateko.

Obraren zuzendaritza teknikoak kalak irekitzeko agindu ahal izango du, baldin eta eraikuntzako ezkutuko akatsak daudela susmatzen badu edo kalitate eskaseko materialak erabili direla. Akats horiek daudela baieztatzen bada, kontratistaren kontura izango dira aitorpen- eta zuzenketa-gastuak. Bestela, zuzendaritzak kalak egin eta konpontzeari dagokion kalte-ordaina ziurtatuko du, esleipen-aurrekontuko aleko prezioetan baloratuta.

Era berean, zuzendaritza fakultatiboak, HAKLEOren 145. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, obra-material eta -unitateen entseguak eta analisiak egiteko agindu ahal izango du, baita kasu bakoitzean egoki diren txosten espezifikoak biltzeko ere. Gastuak administrazioaren edo kontratistaren kontura izango dira, dagokionaren arabera.

Zuzendaritzak urgentziaz agindu ahal izango du berehalako arriskua dagoenean egin beharreko lanak egitea. Enpresa kontratistak lan horiek egin beharko ditu, hargatik eragotzi gabe obraren zuzendaritzak ondoren dagokion administrazio-izapidetzea sustatzea.

Kontratua gauzatzean sortzen diren gorabeheren ebazpena kontraesaneko espediente bidez izapidetuko da, HAKLEOren 97. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontratua gauzatzen den bitartean, enpresa esleipendunak bere gain hartuko ditu lanak egiteari eta materialak eta obrak kontrolatu eta zaintzeari dagozkion erantzukizunak, obraren zuzendaritzak eta ikuskaritzak emandako nahitaezko jarraibideen arabera.

4. KONTRATUAREN EPEA

Kontratuaren exekuzio epea laburpen taularen **8. atalean** zehaztutako izango da.

Enpresa esleipenduna berandutza-egoeran dagoela ulertuko da aipatutako atalean ezarritako epea igaro eta prestazioa gauzatu ez bada, eta administrazioak ez du aldez aurretik errekerimendurik egin beharko.

CSV: 07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Sinadurea eta datea
AINARA ECHEVARRIA AGORRIA-URIGINTZA TEKNIKARIA - 30/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2023 11:15:31

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0001
Datea: 02/01/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

5. KONTRATUAREN ZENBATETSITAKO BALIOA

Kontratu honen zenbatetsitako balioa, laburpen taularen **9. atalean** ezarritakoa da.

6. KONTRATUAREN LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA

Kontratu honen lizitaziorako oinarrizko aurrekontua laburpen taularen **10. atalean** jasotakoa da, BEZa barne. Eta hori izango da kontratazio organoak konprometitu ahal izango duen gehienezko gastua, kontratu honi lotuta.

7. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratu honen prezioa adostutakoarekin bat eta benetan exekutatutako prestazioaren arabera ordainduko zaio kontratistari.

Prezioak BEZa barne hartzen duela ulertuko da, aparteko partida legez zehaztuko bada ere.

8. FINANTZIAZIOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko finantzaketa nahikoa aurreikusi da indarrean dagoen aurrekontuaren kargura, eta aurrekontuen arloan eskumena duen organoak nahikoa kreditu emango du hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan. Kontratuaren indarraldia kreditu horiek izatearen mende gelditukо da.

Aplikagarria den partida laburpen taularen **11. atalean** zehaztutakoa da.

9. ORDAINKETAK, NEURKETAK ETA BALORAZIOA

Proiektuko agirien arabera eta, hala badagokio, zuzendaritza fakultatibotik jasotako aginduen arabera egiten duen obra baino ez zaio ordainduko kontratistari.

Egindako lanen neurketa obraren zuzendaritzak egingo du, eta kontratista lan horiek egiten ari dela ikus dezake. Neurketak APKLEOren 147. artikuluan ezarritako baldintzetan egingo dira.

Obra-mota bakoitzerako, neurketa-unitate gisa hartuko da proiektuaren neurketa-azterketei dagokien epigrafean adierazitakoa. Neurketa amaitutakoan, zuzendaritza fakultatiboak gauzatutako obra baloratuko du, unitate bakoitzari dagokion aurrekontuaren prezio unitarioa edo dagokion kontraesana aplikatuz, obra akastunen ordainketetarako pleguetan aurreikusitakoa, pilatutako materialak, oroharreko partidak eta obran jarritako ekipoaren konturako ordainketak kontuan hartuta.

Balorazioaren emaitzari, aurreko paragrafoan adierazitako moduan lortutakoari, HAKLEOren 131. artikuluan aurrekontua osatzeko ezarritako ehunekoak gehituko zaizkio,

CSV: 07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Sinadurea eta datea
AINARA ECHEVARRIA AGORRIA-URIGINTZA TEKNIKARIA - 30/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2023 11:15:31

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0001
Datea: 02/01/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

eta ateratzen den kopurua esleipen-koefizientearekin biderkatuko da; horrela, hileko ziurtagiria ekarriko duen zerrenda baloratua lortuko da, zeina administrazioak egingo baitu dagokion hilabetearen ondorengo 10 egunetan.

Administrazioak hogeita hamar eguneko epean ordaindu beharko du prezioa, obra ziurtagiriak onartzen diren egunetik zenbatzen hasita, eta, atzeratzen bada, 30 eguneko epe hori igarota berandutze-interesak eta kobrantza-kostuengatiko kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio enpresa kontratistari, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitakoaren arabera.

Interesak sortzeko epea zenbatzen hasteko, kontratistak faktura aurkeztu beharko du dagokion administrazio-erregistroan, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan, garaiz eta behar bezala, 30 eguneko epean, salgaiak entregatzen diren edo zerbitzua ematen den egunetik zenbatzen hasita.

SPKLren 210. artikuluaren 4. atalean eta 243. artikuluko 1. atalean ezarritakoari kalterik egin gabe, obra ziurtagiriak edo emandako zerbitzu-kontratuan xedatutakoarekin bat datozela egiaztatzen duten agiriak onartu beharko ditu administrazioak, ondasunak eman edo zerbitzua eman eta hurrengo 30 egunen barruan.

Egiaztapenaren emaitzak frogatzen badu, zuzendaritza fakultatiboaren iritziz eta kontratistaren aldetik erreserbarik gabe, proiektua bideragarria dela eta lurrak erabilgarri daudela, hark baimena emango du proiektua hasteko, eta gauzatzeko epea akta sinatu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen. Kontratistak, proiektuaren bideragarritasunari buruzko erreserbarik egin gabe, obraren exekuzioari eragin

CSV: 07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Sinadurea eta datea
AINARA ECHEVARRIA AGORRIA-URIGINTZA TEKNIKARIA - 30/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2023 11:15:31

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0001
Datea: 02/01/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

diezaioketen beste ohar batzuk egin baditu, zuzendaritzak, ohar horiek kontuan hartuta, hastea edo etetea erabakiko du, aktan bertan justifikatuta. Hasteko baimena berariaz jasoko da baimen horretan, eta kontratista jakinarazitzat geratuko da, sinatzen badu.

Aurreko paragrafoan aipatutako inguruabarrak egiaztatu ez badira, edo obraren zuzendaritza fakultatiboak proiektatutako obrak aldatzea beharrezkotzat jotzen badu, eten egingo da obren hasiera, eta aktan jasoko da. Administrazioari berehala eman beharko dio horren berri, eta bidezkoa dena ebatziko du. Aldaketaren prozedura HAKLEOren 141. artikuluan aurreikusitakora egokituko da, eta haren araubidea SPKLren 205. artikuluan aurreikusitakoa izango da.

SPKLren 245.b) artikuluaren arabera, kontratua suntsiarazteko arrazoi izango da obren hasiera lau hilabetetik gora etetea.

Ez hastea eragin zuen arrazoia desagertu ondoren, kontratazio-organoak dagokion ebazpena emango du, eta kontratistari modu frogagarrian jakinaraziko zaio. Obrak hasteko baimenaren erabakiaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunean hasiko da kontatzen exekuzio-epea.

Lehen xedatutakoa aplikatuko da, halaber, kontratistak zuinketa egiaztatzeko egintzan erreserbak egiten dituenean. Hala ere, kontratazio-organoaren iritziz erreserba horiek funtsik gabeak badira, ez da etengo obren hasiera, eta, ondorioz, ez da beharrezkoa izango beste erabaki bat hartzea, obrak hasteko eta obrak egiteko epearen zenbaketa aldatzeko.

Zuinketa egiaztatzeko akta kontratuaren zati izango da, eska daitekeen ondorioetarako.

Kontratazioak obra-proiektua idaztea barne hartzen badu, kontratistak aurkeztutako proiektua administrazioak ikuskatu, onartu eta zuinkatu beharko du.

27. LAN- PROGRAMA

Baldintza-agiri honen laburpen-taulan ezartzen denean, eta betiere obra urtebetean baino gehiagotan egitea aurreikusita badago, enpresa kontratistak, kontratua formalizatzen denetik gehienez ere hogeita hamar eguneko epean, dagokion kontratazio-organoak onartu beharko du lan-programa, eta APKLEOren 144. artikuluan eskatutako datuak sartu beharko ditu.

Kontratazio-organoak aurkeztu eta 15 eguneko epean ebatziko du, eta aldaketak sartzea edo preskripzio jakin batzuk betetzea ezarri ahal izango du, betiere kontratuaren klausulak urratzen ez badira.

Kontratua gauzatzeko epea urtebetetik beherakoa bada eta ez bada beharrezkotzat jotzen kontratistak lan-programa aurkeztea, onartutako proiektuaren lan-programan edo, hala badagokio, kontratua esleitzeko eskaintza gisa aurkeztutako memoria teknikoan aurreikusitakoa beteko da.

CSV: 07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Sinadurea eta datea
AINARA ECHEVARRIA AGORRIA-URIGINTZA TEKNIKARIA - 30/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2023 11:15:31

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0001
Datea: 02/01/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

28. SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA

Araudi espezifikoak hala ezartzen ez duen kasuetan izan ezik, Segurtasun eta Osasun Azterlana egin beharko da, edo, hala badagokio, oinarrizko azterlana, dagokionaren arabera, eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera. Enpresa kontratistak laneko segurtasun- eta osasun-plan bat egingo du azterlanean edo oinarrizko azterlanean jasotako aurreikuspenak aztertu, ikertu, garatu eta osatzen dituen obra bakoitzerako, obra gauzatzeko bere sistemaren arabera.

Segurtasun- eta osasun-plana obra bakoitza hasi aurretik onartu beharko du kontratazio-organoak, obra egin bitartean segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzailearen edo, hala badagokio, zuzendaritza fakultatiboaren aldez aurreko txostenarekin.

29. LANAK SEINALEZTATZEA

Kontratistak, bere kontura, behar diren seinaleak jarri beharko ditu obrarako sarbidea, lanek hartzen duten inguruko zirkulazioa eta, alde horretan nahiz haren mugetan eta inguruetan, lanak direla-eta izan daitezkeen arriskuak adierazteko.

Kontratistak seinale osagarriak instalatzeari edo instalatu dituzten seinaleak aldatzeari buruz zuzendaritzak idatziz jasotzen dituen aginduak beteko ditu.

Seinaleak jartzeak sortzen dituen gastuak kontratistaren kontura izango dira.

Zuzendaritza teknikoak ezarritako epea igaro eta enpresa kontratistak ez badu seinaleztapen hori ipini, administrazioak berak ipiniko du, eta gastuak enpresa kontratistaren kontura izango dira.

30. KONTRATISTAREN KONTURAKO GASTU ETA ZERGAK

Edozein obra-unitate behar bezala gauzatzeko eta amaitzeko beharrezkoak diren lan, bitarteko lagungarri eta material guztiak obraren prezioan sartuko dira, nahiz eta prezioen deskonposizioan horiek guztiak zehaztu ez.

Zeharkako kostuen titulu generikoaren pean Kontratuen Legea garatzen duen Erregelamenduaren 130.3 artikuluan aipatzen diren gastuekin pareka daitezkeen gastu guztiak proiektuaren obra-unitateen prezioetan sartuta egongo dira beti, aurrekontuan obra-unitateetan edo oroharreko partidetan jasota ez badaude.

Kontratistaren kontura izango dira kontratua formalizatzearen ondoriozko gastu guztiak, eskritura publiko bihurtzen bada.

Kontratazioaren xedeak proiektua idaztea barne hartzen badu, esleipendunaren

CSV: 07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Sinadurea eta datea
AINARA ECHEVARRIA AGORRIA-URIGINTZA TEKNIKARIA - 30/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2023 11:15:31

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0001
Datea: 02/01/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

proposamenean sartutzat hartuko dira obra-proiektuari oniritzia emateko eskubideak.

Enpresa kontratistaren kontura izango dira obra-zuzendaritzak erabakitako saiakuntza-gastuak eta kalitate-kontrolak, obraren aurrekontuaren % 1, gehienez ere. Hala ere, ez dute muga hori izango, eta enpresa kontratistaren kontura izango dira obra kalitatean eta egikaritzean izandako akatsen ondorioz egin behar diren kontrol-gastu guztiak.

31. KONTRATUA ALDATZEA

Behin kontratua eginda, interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango da, hala aurreikusita dagoenean edo, aurreikusi gabeko kasuetan, legean aurreikusitako inguruabarrak gertatzen direnean.

a) Aurreikusitako aldaketak (SPKLko 204. artikulua):

Kontratua indarrean dagoen bitartean aldatu ahal izango da, baldin eta laburpen taulan aukera hori aurreikusita badago eta argi, zehatz eta zalantzarik gabe zehaztu bada ze baldintzatan erabili ahal izango den, baita ze irismen, muga eta izaera izango dituen ere; halaber, kontratua ze baldintzatan erabili ahal izango den modu objektiboan egiazta daitezkeen inguruabarrei dagokienez.

Edonola ere, kontratua hasierako prezioaren %20raino, gehienez ere, aldatu ahal izango da.

b) Aurreikusi gabeko aldaketak (SPKLko 205. artikulua):

Kontratuak SPKLren 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan eta baldintzak betez baino ezin izango dira aldatu.

Kontratazio- organoak adostutako aurreikusi gabeko aldaketak kontratistentzako derrigorrezkoak izango dira. Kontratazio-organoak erabakitako aurreikusi gabeko aldaketen kasuan, kontratistentzat nahitaezkoak izango dira, baldin eta, banaka edo batera, kontratuaren hasierako prezioaren %20 gainditzen ez duen aldaketa badakarte, BEZ kanpo.

Aldaketa egiteko jarraitu beharreko prozedura SPKLren 207. artikuluan aurreikusitakoa izango da.

Ez dira obra-kontratuaren aldaketatzat hartuko SPKLren 242. artikuluko 4. paragrafoan (*in fine*) ezarritakoak.

32. OBRAK ETETEA

Administrazioak, interes publikoko arrazoiak direla-eta, kontratuaren betearazpena etetea erabaki ahal izango du. Era berean, SPKLren 198.5 artikuluan adierazitako inguruabarra gertatzen bada, kontratua etetea egokia da. Kontratua eteteko, SPKLren 208. artikuluan eta APKLEOren xedapen bateragarrietan xedatutakoa beteko da.

CSV: 07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Sinadurea eta datea

AINARA ECHEVARRIA AGORRIA-URIGINTZA TEKNIKARIA - 30/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2023 11:15:31

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0001

Datea: 02/01/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Administrazioak kontratua etetea erabakitzen badu, edo SPKLn xedatutakoa aplikatuta eteten bada, akta bat egingo da, eta akta horretan jasoko dira etetea eragin duten inguruabarrak eta kontratua gauzatzean izandako egitatezko egoera. Akta hori kontratazio-organoaren ordezkari batek, kontratistak eta obraren zuzendariak sinatu beharko dute, eta hari erantsi beharko zaizkio gauzatutako obraren neurketa eta obra-oinean metatutako materialak, etendako obraren zatian edo zatietan soilik erabil daitezkeenak.

Administrazioak kontratua etetea erabakiko balu edo SPKLren 198.5 artikuluan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz eteten bada, administrazioak benetan jasandako kalte-galerak ordainduko dizkio enpresa kontratistari, SPKLren aipatutako 208 artikuluan ezarritako arauekin bat.

33. AZPIKONTRATATZEA ETA LAGATZEA

Kontratistak hirugarrenekin hitzartu ahal izango du prestazioaren zati bat egitea, SPKLren 215.2 artikuluaren d) eta e) letretan ezarritakoa izan ezik, edo prestazioa edo prestazioaren zati bat kontratistak zuzenean gauzatu behar duela xedatu denean izan ezik.

Azpikontratazioak kontratatzeko honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Lizitatzaileek euren eskaintzan adierazi beharko dute kontratuaren ze zati azpikontratzeko asmoa duten, zenbatekoa zehaztuz, eta lan egiteko azpikontratatuko duten azpikontratisten izena edo enpresa-profila, kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzen arabera zehaztua.

Kasu honetan, azpikontratuak ez badatoz bat eskaintzan adierazitakoarekin, ezin izango dira egin 20 egun igaro arte hurrengo paragrafoan aipatutako justifikazioak jakinarazi eta aurkezten dituztenetik, ez bada administrazioak edo larrialdi-egoera justifikatuak aurretik berariazko baimena eman duela, salbu eta administrazioak epe horretan aurka egiten duela jakinarazten badu.

b) Nolanahi ere, kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio, kontratua esleitu ondoren eta, gehienez ere, kontratua gauzatzen hasten denean, kontratazio-organoari azpikontratuak egiteko asmoa duela, azpikontratatu nahi den prestazioaren zatia eta azpikontratistaren nortasuna, harremanetarako datuak eta ordezkaria edo legezko ordezkariak adieraziz, eta behar bezala justifikatuz azpikontratistak kontratua gauzatzeko duen gaitasuna, dauzkan elementu tekniko eta giza baliabideei eta esperientziari dagokienez.

Era berean, egin beharreko azpikontratuaren berri administrazioari emateko idazkiarekin batera, kontratistak egiaztatu beharko du azpikontratistak ez duela kontratatzeko

CSV: 07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Sinadurea eta datea
AINARA ECHEVARRIA AGORRIA-URIGINTZA TEKNIKARIA - 30/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2023 11:15:31

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0001
Datea: 02/01/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

debekurik SPKLren 71. artikuluaren arabera. Egiaztatze hori azpikontratistaren erantzukizunpeko adierazpenaren bidez gauzatu ahal izango da.

Kontratista nagusiak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari kontratu nagusia egikaritu bitartean informazio hori aldatzen bada, eta azpikontratista berriei buruz beharrezkoa den informazio guztia.

Baldintza horiek urratzeak eta azpikontratistaren gaitasuna edo larrialdi-egoera eragiten duten edo azpikontratazioa premiazkoa egiten duten inguruabarrak ez egiaztatzeak, SPKLn aurreikusitako beste batzuen artean, eta kontratua gauzatzean izango duen eraginaren arabera, honako ondorio hauetakoren bat izango du:

a) Kontratistari azpikontratuaren zenbatekoaren % 50erainoko zigorra ezartzea.

b) Kontratua indargabetzea, baldin eta SPKLren 211. artikuluko 1. paragrafoko f) idatz-zatiko bigarren paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Azpikontratistek kontratista nagusiaren aurrean baino ez dituzte edukiko betebeharrak, eta beraz, administrazioaren aurrean, kontratista nagusiak izango du kontratua betetzeko ardura osoa.

Kontratistak azpikontratazioaren berri eman beharko die langileen ordezkariei, lan-legeriaren arabera.

Azpikontratistek ez dute zuzeneko eraginik izango administrazio kontratatzailearen aurrean, kontratu nagusia eta azpikontratuak gauzatzearen ondorioz kontratistak haiekin hartutako betebeharrengatik.

Kontratistak itundutako prezioa ordaindu beharko die azpikontratistei edo hornitzaileei, eta ezin izango dira izan merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitakoak baino txarragoak.

Kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio esleipendunak, baldin eta lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak ez badira izan kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarria, eta, gainera, SPKLren 214. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira, eta lagapena ez bada merkatuko lehiaren benetako murrizketa.

Ezin izango zaio hirugarren bati lagatzeko baimenik eman, horrek kontratistaren ezaugarriak funtsean aldatzen baditu, baldin eta ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementua badira.

Enpresa esleipendunaren segida emateko, SPKLren 98. artikuluan xedatutakoa hartuko da kontuan.

CSV: 07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI
Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Sinadurea eta datea
AINARA ECHEVARRIA AGORRIA-URIGINTZA TEKNIKARIA - 30/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2023 11:15:31

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0001
Datea: 02/01/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

34. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BETETZEAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Kontratua betetzen den bitartean, esleipendunaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo antolakuntza txarraz edo antzeko arrazoiren batengatik gertatzen badira. Esleipendunaren ardura da kontratuko eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen Testu Bateginaren 97. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

35. ZIGORRAK

A) BERANDUTZEAGATIKO ZIGORRAK

Esleipendunak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, kontratua gauzatzeko epea – epe osokoa, bai, hala badagokio, epe partzialetakoa – betetzeko atzerapena izan balu, administrazioak kontratua suntsiaraztea erabaki ahal izango du, bermea galduz, edo eguneko zigorrak ezartzea, kontratuaren prezioaren 1.000,00 euroko 0,60 euroko proportzioan (SPKLren 193.3 artikulua).

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat joten duen bakoitzean, kontratazino-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta betetzean aurrera egin dezan erabakitzeko.

B) AKASTUN BETETZEAGATIKO ZIGORRAK

Kontratistak kontratuaren xedea oker gauzatzen badu, edo kontratua gauzatzeko behar diren giza baliabideak edo baliabide materialak edo ezarritako baldintza bereziak erabiltzeko edo atxikitzeko konpromisoa betetzen ez badu, kontratazio-organoak ez-betetzearen larritasunaren araberako zigor ekonomikoa ezarri ahal izango du.

Laburpen-taulan bestelako zigorrik aurreikusten ez bada, kontratuaren xede den prestazioa oker betetzea honela zigortuko da:

- Arau orokor gisa, horietako bakoitzaren zenbatekoa kontratuaren prezioaren %1 izango da, non eta, arrazoituta, kontratazio-organoak ez duen uste ez-betetze hori larria edo oso larria denik; kasu horretan, kontratuaren prezioaren %5era edo gehienez ere legezko %10era iritsi ahal izango dira (BEZik gabe), hurrenez hurren. Ez-betetzea errepikatzea kontuan hartu ahal izango da larritasuna baloratzeko.

Nolanahi ere, horietako bakoitzaren zenbatekoak ezin izango dira kontratuaren prezioaren %10 baino handiagoak izan, BEZik gabe, eta horien guztizkoak ezin izango du kontratuaren prezioaren %50 gainditu.

CSV: 07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Sinadurea eta datea
AINARA ECHEVARRIA AGORRIA-URIGINTZA TEKNIKARIA - 30/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2023 11:15:31

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0001
Datea: 02/01/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Nolanahi ere, zigorrak ezartzeak ez du kontratista salbuetsiko akatsak konpontzeko legez dagokion betebeharretik.

IV. KONTRATUA AZKENTZEA

36. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua bertan behera uzteko arrazoiak dira SPKLren 211 eta 245. artikuluetan azaltzen direnak eta baita laburpen taulan aurreikusitakoak ere.

SPKLren 211.2 artikuluarekin bat etorriz, kontratua suntsiarazteko arrazoi bat baino gehiago egonez gero, eta azkentzearen ondorio ekonomikoei dagokienez hainbat eraginekin, denboran lehentasunez agertu denari erreparatu beharko zaio.

Kontratazio-organoak erabakiko du kontratua suntsiaraztea, SPKLren 212.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, arauz ezarritako moduan izapidetutako prozeduraren bidez.

Kontratua kontratistaren erruz ez betetzeagatik suntsiarazten bada, bermea konfiskatu egingo zaio, eta, gainera, administrazioari kalte-ordaina eman beharko dio konfiskatutako bermearen zenbatekoa gainditzen duten kalte-galerengatik. Kontratistak ordaindu beharreko kalte-galeren zehaztapena kontratazio-organoak egingo du, arrazoitutako erabaki baten bidez eta aurretiaz entzunda, eta, besteak beste, proiektatutako inbertsioari eragiten dion atzerapena eta administrazioari eragiten dizkion gastu handiagoak kontuan hartuta.

Suntsiarazteko arrazoiak aplikatzeko, SPKLren 212. artikuluan xedatutakoa beteko da, eta, horren ondorioetarako, SPKLren 213. eta 246. artikuluetan xedatutakoa, bai eta, hala badagokio, erregelamendu-garapenean xedatutakoa ere.

37. OBRA AMAITZEAREN ABISUA

Kontratistak kontratua amaitzeko edo gauzatzeko aurreikusitako data jakinaraziko dio obraren zuzendaritzari, harrera egin ahal izateko. Komunikazio hori izapidetzeko prozedura eta epeak, harrera egiteko ordezkaria izendatzea eta Kontu-hartzailetzari jakinaraztea HAKLEOren 163. artikuluan ezarritakoaren arabera arautuko dira.

38. LANAK HARTZEA

Obra bakoitza amaitu eta hurrengo hilabetean, obra hartuko da, egintza formal bidez.

Harreran, administrazioak kontratuaren arduradun izendatutako pertsona egongo da, hala badagokio, edo administrazioak horretarako izendatutako fakultatibo bat, baita Kontu-hartzailetza Nagusiaren ordezkari bat ere, hala badagokio, obren zuzendaritzaz arduratuko den fakultatiboa eta kontratista, bere medikuak lagunduta, egoki baderitzo.

CSV: 07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Sinadurea eta datea
AINARA ECHEVARRIA AGORRIA-URIGINTZA TEKNIKARIA - 30/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2023 11:15:31

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0001
Datea: 02/01/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Obrak egoera onean eta aurreikusitako aginduen arabera eginda badaude, administrazio kontratatzaileak izendatutako funtzionario teknikoak, haren ordezkari legez, hartutzat emango ditu, eta dagokion akta jasoko du. Orduan hasiko da berme epea.

Ostera, obrak ez daudenean hartzeko moduan, egoera hori jaso egingo da aktan, eta zuzendariak antzemandako akatsak zehaztu eta eman beharreko aginduak emango ditu, akatsok zuzentzeko epe eta guzti. Epe hori igarota kontratistak ez baditu konpondu, beste epe bat eman ahal izango zaio, luzaezina, edo kontratua bertan behera utzi.

Kontratazio organoak, espedientean behar bezala arrazoitutako interes publikoko arrazoiengatik, obren benetako okupazioa edo erabilera publikorako zerbitzuan ipintzea erabaki dezake, harrera ekintza formala egin barik badago ere. Kasu hauetan, benetako okupazioa gertatzen denetik edo zerbitzuan jartzen denetik, harrera-egintzaren berezko eraginak eta ondorioak sortuko dira.

Hala ere, administrazioaren ordezkariaren txostenaren arabera akastunak edo amaitu gabeak diren obrak benetan okupatzeak edo zerbitzuan jartzeak edo behin-behinean erabiltzeak ez du obrak jasotzea ekarriko, eta ez ditu harrera-egintzaren berezko eragin eta ondorioak eragingo.

39. NEURKETA OROKORRA ETA OBRAREN AZKEN ZIURTAGIRIA

Obrak jaso ondoren, neurketa orokorra egingo da, kontratista bertan dela, eta zuzendaritza fakultatiboak proiektuaren arabera benetan egindako obrak neurtuko ditu hilabeteko epean, obrak jasotzen direnetik zenbatzen hasita. Harrera egiten denetik aurrera 3 hilabeteko epean, egindako obren azken ziurtagiria onartu beharko du kontratazio organoak, eta, hala badagokio, kontratuaren likidazioaren kontura ordainduko zaio kontratistari, SPKLren 198.4 artikuluan aurreikusitako epean.

40. BERME- EPEA ETA OBRAREN LIKIDAZIOA

Berme-epea jasotzen den egunetik aurrera hasiko da kontatzen, eta agiri honen laburpen-taulan adierazitakoa izango da. Berme-epean zaintza- eta kontserbazio-gastuak kontratistaren kontura izango dira.

Epe horretan, behin betiko bermeak SPKLren 110. artikuluan adierazitako kontzeptu aplikagarriei erantzungo die.

Epe horretan, kontratistak beti zainduko du obren kontserbazioa eta zaintza, proiektuaren baldintza teknikoen agirian eta obraren zuzendaritzak emandako jarraibideetan aurreikusitakoaren arabera. Administrazioaren iritziz, kontserbazioa alde batera uzten bada eta obra arriskuan jartzen bada, administrazioak berak eta kontratistaren kontura egingo ditu kaltea saihesteko beharrezkoak diren lanak.

Harrera partzialen kasuan, jasotako alderdien berme-epea harrera partzialen datatik

CSV: 07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Sinadurea eta datea
AINARA ECHEVARRIA AGORRIA-URIGINTZA TEKNIKARIA - 30/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2023 11:15:31

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0001
Datea: 02/01/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

aurrera hasiko da zenbatzen.

Berme epea amaitu baino aurreko 15 egunen barruan, zuzendaritza fakultatiboak, ofizioz edo kontratistak eskatuta, obren egoerari buruzko txostena idatziko du. Txostena aldekoa izanez gero, kontratista erantzukizun guztietatik salbu geratuko da, SPKLren 244. artikuluan zehaztutakotik izan ezik eta bermea itzuli edo ezabatuko da, kontratua likidatuko da eta, hala badagokio, zorretan dauden azken obligazioak ordainduko dira. Ordainketa hori 60 eguneko epean egin beharko da. Txostena ez balitz aldekoa eta antzemandako akatsak obren exekuzioko gabezien ondoriozkoak balira eta ez eraikitakoaren erabileraren ondoriozkoak, berme epearen barruan, eraikitakoa behar bezala konpontzeko eman beharreko aginduak emango dizkio zuzendaritza fakultatiboak kontratistari. Agindu horiek betetzeko epe bat izango du kontratistak, eta epe horretan obren kontserbazioaren arduradun izaten jarraituko du, berme epea luzatzeagatik inolako zenbatekorik jasotzeko eskubiderik gabe.

Nolanahi ere, berme-epea igaro ondoren, txostena aldekoa bada edo, bestela, eraikitakoa konpondu ondoren, zuzendaritza fakultatiboak benetan egindakoen likidazio-proposamena egingo du hilabeteko epean, eta kontratistari jakinaraziko zaio, 10 eguneko epean ados dagoela adieraz dezan edo egoki iritzitako eragozpenak adieraz ditzan. Kontratistak erantzun duenetik edo horretarako ezarritako epea igaro denetik 2 hilabeteko epean, kontratazio-organoak likidazioa onartu beharko du, eta, hala badagokio, likidazioaren ondoriozko saldoa ordaindu beharko du.

Kontratazio organoak, espedientean behar bezala arrazoitutako interes publikoko salbuespenezko arrazoiengatik beti, obraren benetako okupazioa edo erabilera publikorako zerbitzuan ipintzea erabakiko balu, harrera ekintza formala egin barik badago ere, zirkunstantzia horiek egon daudenetik aurrera obren harrera ekintzaren eragin eta ondorio berberak izango ditu, HAKLEOren 168. artikuluan ezarritako baldintzetan.

41. EZKUTUKO AKATSEN ERANTZUKIZUNA

Berme-epea amaitu ondoren obra hondatzen bada edo bere eginkizunarekin bateraezinak diren narriadura larriak jasaten baditu, eraikuntzaren ezkutuko akatsengatik, kontratistak kontratua ez betetzeagatik, sortzen diren edo agertzen diren kalteen erantzule izango da 15 urteko epean, jasotzen denetik zenbatzen hasita.

Era berean, kontratistak, epe horretan, zimenduei, euskarriei, habeei, forjatuei, karga-hormei edo bestelako egitura-elementuei eragiten dieten eta eraikuntzaren erresistentzia mekanikoa eta egonkortasuna zuzenean arriskuan jartzen duten akatsek edo okerrek obran eragindako kalte materialei erantzungo die, obra inolako eragozpenik gabe jasotzen denetik edo horiek zuzentzen direnetik zenbatzen hasita.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako erantzukizuna eskatzeko akzioak, akats edo akatsetatik datozen kalte materialengatik, bi urteko epean preskribatuko dira, kalte horiek gertatu edo agertzen direnetik zenbatzen hasita, kontratua ez betetzeagatiko

CSV: 07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Sinadurea eta datea
AINARA ECHEVARRIA AGORRIA-URIGINTZA TEKNIKARIA - 30/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2023 11:15:31

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0001
Datea: 02/01/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

erantzukizunak eskatzeko iraun dezaketen akzioei kalterik egin gabe.

Epe hori amaitutakoan, bestelako kalte edo galerarik ez bada izan, esleipendunaren erantzukizuna amaitutzat joko da.

V.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

42. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Plegu hau arautzen duen kontratuak administrazio-izaera du, SPKLren 25. artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz, eta kontratazioaren arloko Estatuko oinarrizko legerian bertan aurreikusi ez den guztian arautuko da kontratuaren prestakuntzari, esleipenari, ondorioei eta azkentzeari dagokienez (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora; Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartua, 2017ko SPKLn xedatutakoaren aurka ez doan guztian; eta maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duena) kontratuen arloko autonomia-erkidegoko garapen-arauek eta toki-araubidekoek, eta, osagarri gisa, oinarrizko izaera ez duten kontratazioari buruzko estatu-arauak, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatukoak aplikatuko dira.

Ildo honetan, enpresa lizitatzaileak berariaz onartzen du sektore publikoko kontratuei buruz indarrean dagoen legeria eta plegu honetan xedatutakoa betetzea.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

43. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

SPKLn adierazitako mugen barruan eta baldintza eta ondorioei lotuta, kontratazio-organoak honako eskumen hau du: administrazio-kontratuak interpretatzea, kontratu horiek betetzeak sor ditzakeen zalantzak ebaztea, interes publikoko arrazoiengatik kontratuak aldatzea, kontratua gauzatzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna deklaratzea, kontratua betearaztea etetea, kontratua suntsiaraztea erabakitzea eta horren ondorioak zehaztea.

Era berean, kontratazio-organoak kontratistek kontratua egikaritu bitartean garatutako jarduerak ikuskatzeko ahalmena du, SPKLn kontratu-mota bakoitzerako ezarritako

CSV: 07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI
Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Sinadurea eta datea
AINARA ECHEVARRIA AGORRIA-URIGINTZA TEKNIKARIA - 30/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2023 11:15:31

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0001
Datea: 02/01/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

baldintzetan eta mugekin. Ikuskapen-ahalmen horiek ez dute inola ere ekarriko kontratazio-organoaren eskubide orokorrik kontratistak bere jarduerak garatzen dituen instalazioak, bulegoak eta gainerako kokalekuak ikuskatzeko, non eta kokapen horiek eta haien baldintza teknikoak ez diren kontratuaren xede diren prestazioak garatzeko erabakigarriak, eta alderdi horiek berariaz eta xehetasunez justifikatu beharko dira administrazio-espedientean.

Aurretik ezarritako eskumenei buruzko erabakiak hartzeko prozedurak SPKLren 191. artikuluan xedatutakoaren arabera izapidetuko dira.

Kontratazio-organoak hartzen dituen erabakiek administrazio-bidea amaituko dute, eta berehala betearaziko dira.

44. ERREKURTSOAK

Baldintza-agirietan eta kontratazio-espedientean hartutako erabakien aurka, laburpen-taulako **43. atalean** aipatutako errekurtsoak aurkeztu ahal izango dira.

45. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorriz.

CSV: 07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E7000B9F2E00Z0P7L3X0Y8C9

Sinadurea eta datea

AINARA ECHEVARRIA AGORRIA-URIGINTZA TEKNIKARIA - 30/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2023 11:15:31

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0001

Datea: 02/01/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia